

## Kostu Egitura:

Atal honetako gaia gure enpresak sortzen dituen gastuei buruzkoa izango da.

Lehenengo ziurtatu behar dugun puntua lehengaiak dira, hauek gabe ezingo baitugu gure jatetxeko janaria prestatu.

Hurrengo puntuan gure enpresa kokatuko dugun lokalak ekarriko dituen gastuak kokatuko lirateke. Hemen ez da alokairua bakarrik sartuko, berak ekartzen dituen gastuak baita.

Gure enpresak arrakasta izateko publizitatea beharrezko pausu bat izango da. Hemen publizitatea egiteak ekarriko dizkigun kostuei aurre egiteko prest egon behar gara.



Azkenik, gure produktua ezin dezaten beste pertsona batzuk erabili, patentatu egin beharko dugu eta honek kostu bat gehituko digu.

Hau izango litzateke gure kostu egitura:

- Materialak:
  - Jateko orduan erabiliko diren tresnak (koilarak, platerak...)
  - Platerak: 4,99€/plater bakoitza

- Jateko tresnak: 1,99€/tresna bakoitza
- Edalontziak: 2,99€/edalontzi bakoitza
- Mahaiak eta eserlekuak: 45€ bakoitzak.
- Sukaldean beharko diren tresnak, makinak eta materialak: 7900€ ingurukoa.



Azkenik, guk beharko ditugun baliabide guztien batura egin genuen batura hau izango litzateke guztira .

- Lokalak :
  - Gure inguruan dauden lokalen prezioak begiratzen ibili ondoren eta konparaketak egin ondoren, prezio komenigarriena 700€/hilekoa izan zen.
- Internet:
  - Interneteko zerbitzua gure lokalean eduki ahal izateko 123€/hiruileko bakoitzeko izango litzateke.
- Publizitatea:
  - Gure herriko eskubaloiko taldeak kamisetan gure jatetxeko logoa izango du eta trukean guk bidaietarako diru laguntzak eskainiko dizkiegu.
- Patentea:

- Patentea ateratzeko garaian arazoak izan ditzazkegun arren gure tematikaren antzekoak diren beste jabetxe batzuekin, guztira 800€ ingurukoa izango litzateke.



- Soldatak:

- Hasierako soldatak ezingo dira aurretik definituak izan, gure irabaziak jasotzen eta ezagutzen hasi arte. Irabaziak jakin aurretik, enpresaren sortzaile bakoitzak 2500€/ko x4 soldata inguru jasoko du eta bertan dauden langileek 1500€ x2 inguru



- Hasierako taldekide bakoitzak jarri beharko lukeen dirua: 4000€ inguru.